

**GJH**en aldeko Euskal Aliantza  
**Adierazpena**

**2030 Agenda** Euskadi  
Kontratu Sozial baterako

2023ko urriaren 2a



Euskal erakundeok eta Euskadiko eragile akademiko, zientifiko, ekonomiko eta gizarte zibileko eragile ugari konpromiso sendoa dugu Garapen Jasangarrirako Helburuekin. Nazioarteko erakundeek aitortu dute Euskadik bultzada aitzindaria eta erreferentziazkoa izan duela haren garapenean. 2022ko irailean, Nazio Batuek erabaki zuten Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza orokorra Euskadin kokatzea.

2017ko apirilaren 10ean onartu zen lehen Euskadi Basque Country 2030 Agenda. 2018an, Euskadikoa izan zen Estatukoa ez den munduko lehen gobernua 2030 Agendaren Borondatezko Jarraipen Txostena aurkezten. Harrezkero, erakundeek eta euskal gizarteak aurrera egiten jarraitu dugu. 2021ean, 2030 Agenda Euskadi Foroa eratu zen, eragile anitzeko eta erakundearteko gobernantza-eremu gisa.

Adostasuna partekatzen dugu: XXI. mendearen lehen parte honen ezaugarri dituen krisi-egoera historikoan, desberdintasunen gorakadan, ziurgabetasunean eta aldaketa globalean eta tokikoan, 2030 Agenda premia, aukera eta konpromisoa da. Diagnostiko bat partekatzen dugu: 2023an, aldiaren erdian, 2030 Agendak bultzatzen duen eraldaketa-prozesuari buruzko balantze globala ez da positiboa.

2019an, GJHak ez ziren behar bezala betetzen munduan. Urte hartako irailean, Antonio Guterres Nazio Batuetako idazkari nagusiak gobernuei, enpresei eta gizarte zibilariei egin zien beren konpromisoak areagotu zituzten, eta hurrengo 10 urteak Ekintzaren Hamarkada izendatu zituen.

2020tik 2023ra bitartean, pandemia bat izan dugu, desberdintasun-arrailak handitu dituen. Errusiak Ukraina inbadituz eragindako gerraren erdian gaude. Bere ondorio humanitario onartezinak pairatzen ditugu, eta bere ondorio energetikoak, ekologikoak, inflazionarioak eta sozioekonomikoak jasaten ari gara. GJHak betetzeari buruzko pronostikoak okerrera egin du.

Helburu globalak behar bezala garatu ez diren arren, eta aurkako testuingurua gorabehera, munduak ezinbestean egin behar du aurrera agenda global hori betetzeko bidean. Aberastasunaren birbanaketa eta iraunkortasun ekologiko eta soziala lehentasunezko helburutzat hartuko dituen eredu bat behar dugu. Azken batean, eredu berriak behar ditugu, hazkunde ekonomiko mugagabearen imajinario nagusitik ateratzen direnak, eta berriz ere pertsonak zaintzea eta bizitza beren kezken eta analisien erdigunean jartzen dutenak. Beharrezkoa

da erantzun positibo bat sustatzea, inflexio-puntu bat sortzen lagunduko duena. Euskadin ez dugu nazioarteko erabakiak aldatzeko araugintza-ahalmenik, baina eragiteko gaitasuna dugu, bai eta laguntzeko borondatea ere.

Gure eskumen- eta erantzukizun-eremuan jarduteko gaitasuna dugu, batez ere; konpromisoak hartzea eta inizatiba hartzea gure mende dagoen horretan. Euskadik GJHei dagokienez bultzatutako garapena garrantzitsua bada ere, ezin gara konformatu. Urratsak ematen jarraitu behar dugu. GJHen aldeko Euskal Aliantza eratu genuen, "2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako" adierazpenaren bidez. Gure egiten ditugu konpromiso eta inplikazio hauek:

Konpromisoak	Inplikazioak
<b>Lehenengoa.</b> 17. GJHarekin bat etorritz, 2030 Agenda garatzeko ahaleginak bateratzeko konpromisoa hartu dugu lehenetasun gisa. Konpromiso horrek eskatzen du gizarte-eragileen eta erakundeen arteko lankidetzarako eta kon-tuak emateko esparruak indartzea.	•Sektoreko lehenetasun partekatutak identifi-katzen laguntzea, bai eta proiektu adieraz-garriak batera sortzen ere, eta adostea 2030 Agenda Euskadi Foroaren Guneak eremua erreferentzia-gune bihur dadila GJHen aldeko Euskal Aliantzaren proiektuen deliberaziora-ko, gobernantzarako, jarraipenerako eta sus-tapenerako.
<b>Bigarrena.</b> Gure ustez, 2030 Agendaren jasan-garritasun- eta elkartasun-printzipioek, au-rrerapen- eta lehiakortasun-faktoreak izateaz gain, gure entitateen eta enpresen barruan eraldaketa-metodologia berri bat ezartzea dakarte, helburuak, baliabideak eta funtziona-mendua zehazterakoan.	•Adierazpen honekin batera aurkezten den "Enpresetan eta erakundeetan 2030 Agenda garatzeko gida" pixkanaka txertatzea, bai eta haren erreferentzia-esparrua ere. GJHen ikus-pegia aurrekontuak egitean eta kudeatzean eta adierazle partekatutak erabiltzean aplika-tzeko bidean aurrera egitea.
<b>Hirugarrena.</b> 2030 Agenda zabaltzea, gaur egun munduak behar dituen eraldaketa nagusi erantzun globala, tokioa eta pertsonala emateko.	•Dibulgazio-, prestakuntza-, hezkuntza-, herri-tarren partaidetza- eta GJHei buruzko elkarriz-keta- eta deliberazio-espazioak sortzeko pro-gramak bultzatzea.
<b>Laugarrena.</b> GJHen elkartasun- eta jasangarri-tasun-printzipioak sustatzea euskal gizarte-2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako oinarri gisa, 2030 Agendaren protagonista izan-go diren herritar aktiboak sustatzen laguntzeko.	•2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozialaren filosofia herritarren inplikaziorako bide gisa eskaintzen duten ekimenak partekatzea, he-rritarrek inplikatzeko, ahalduntzeko eta GJHei egiten zaien euskal ekarpenean parte hartzeko.
<b>Bosgarrena.</b> 2030 Agenda nazioartean susta-tzen laguntzea, 2030 Agendaren lokalizazioko eta elkarlaneko gobernanzako euskal espe-rientziaren modelizazioaren bidez eta nazioar-teko beste errealitate batzuekin jardunbide egokiak trukatzeko, ikasteko eta elkartzeko guneak sortuz. Aldi berean lokalizatzea eta nazioartekotzea.	•Local 2030 Idazkaritzarekin solaskidetz- eta lankidetz-esparru bat ezartzea, euskal espe-rientziak Euskadin eta nazioartean sortutako espazioetan zabaltzen laguntzea, eta maila eta aktore anitzeko gobernanzaren Hub-aren kon-figurazioan parte hartzea, Local 2030 Idazkari-tzari lotuta.

2030 Agenda Nazio Batuen akordio bat da, nazioarteko ahaleginik onenak lerrokatzen dituen mundu bidezkoago, ekologikoago, oparago eta baketsuago bat lortzen laguntzeko. Akordio bat ikuspegi global eta lokalarekin, dimentsio politiko, sozial eta pertsonalarekin. Historiaren une zalantzagarri honetan munduak planteatzen digun beharrari eta aukerari emandako erantzuna da. GJHeK erakunde, eragile sozial, kultural eta ekonomiko guztiak eta gizarte osoa interpelatu dituzte. 2030 Agendak, 17 helburuek eta 169 jomugak osatzen dute etorkizun hobea eraikitzeko kontratu sozial berri baten oinarria.

**Hasiera batean, honako erakunde hauek atxiki zaizkio Adierazpen honi:**

A&B Laborategiak	EGK-Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	Mondragon Corporation
Aclima	EHU-UPV	Mondragón Unibertsitatea
Alboan	ELIKA Fundazioa	Mugarik Gabeko Ekonomialariak
Garapen Jasangarriaren aldeko 2030erako Arabako Aliantza	Elkargi	Munduko Landa Foroa
Arantzazulab	Emakunde	Orkestra
Athletic Club Fundazioa	Euskalit	Real Sociedad Fundazioa
Auren	Euskalmet	REAS Euskadi
Baketik Fundazioa	Feeldot	SANNAS-Asociación de empresas del Triple Balance
Basque Culinary Center	Fundación Alavés	Sareen Sarea
Basque Team	Fundación Vital Fundazioa	SIIS
BasquePro	Geoparkea	Sociedad Deportiva Eibar
BBK Kuna	Globernance	SPRI
BC3 Basque Centre for Climate Change	Ihobe	Tecnalia
Bolton Food-Conservas Garavilla	Ikuspegi	Tknika
Coop&Co	Ingeteam	Tubacex
Deusto Cities Lab	Ingurugela	UN Etxea
Deusto Unibertsitatea	Izaite	UNICEF Comité País Vasco
EDE Fundazioa	Jakiunde	
	Kutxa Fundazioa	
	Lurgaia Fundazioa	

Gasteiz, 2023ko urriaren 2a

**Atxikipen berriak helbide honetara zuzendu daitezke:** [2030agenda@euskadi.eus](mailto:2030agenda@euskadi.eus)

